BOLETIN INFORMATIVO | FEBRERO 2017

GEROA BAI

# Estella-Lizarra

# UPN, responsable de la pésima gestión de Oncineda

Geroa Bai considera que **UPN es el responsable** de que el Ayuntamiento de Estella/Lizarra pueda verse obligado a **pagar hasta 9,7 millones** de euros por su **mala gestión** del proyecto de la zona deportiva de **Oncineda** desde 2007 a 2015.

La situación puede ser grave, puesto que pagar esas cuantiosas cantidades **comprometería la economía del Ayuntamiento**. Hay que recordar que los presupuestos de nuestra ciudad para este año ascienden a 10,8 millones de euros.




El inicio del proyecto data de la legislatura 2003-2007 y su implementación tenia un desarrollo por fases. La primera etapa consistía en dotar a Oncineda de piscinas públicas, un edificio social, infraestructuras deportivas y un campo de fútbol de hierba artificial. **Dicho proyecto contaba con una viabilidad contrastada**, y prueba de ello es un informe de intervención del 26 de marzo de 2007 que así lo señalaba. Así, la tramitación del proyecto fue aprobado por 6 de los 7 grupos municipales de entonces (PSN, EA, CUE, IU, CDN y PNV).

Tras el cambio de gobierno municipal en 2007, resulta incomprensible que el nuevo equipo de gobierno continuara adelante con un proyecto con el que en varias ocasiones se habían manifestado en contra. De hecho, UPN tuvo varias opciones de renunciar a este proyecto y no continuar con la firma de convenios, que es por lo que en última instancia ha llegado ahora esta sentencia.

Las responsabilidades son claras, y corresponden a un solo grupo político, **UPN, que tuvo en sus manos evitar esta situación, puesto que gestionó la ciudad entre el año 2007 y el 2015**. Resulta todavía más inverosímil que, pese a no tener interés en consolidar este proyecto, UPN continuara con el mismo.

La otra gran paradoja es que UPN rompió la viabilidad del proyecto **al hacer caso omiso a uno de los puntos clave del informe de Intervención**, que ponía como condición la venta de suelo de Merkatondoa (14.780 m2 urbanizables), cuyos ingresos hubieran servido para financiar en gran parte el nuevo campo de futbol y las piscinas municipales en Oncineda.

Además, UPN todavía se aleja más de las directrices del informe, dado que hay que añadir la gran inversión realizada en las rehabilitaciones del viejo campo de futbol de Merkatondoa y las viejas piscinas municipales que aproximadamente ascendieron a 2,5 millones de euros. En conclusión, se puede calificar la intervención de los regionalistas de **absoluto despropósito** al seguir adelante aparentemente con un proyecto de la anterior legislatura y **hacer lo contrario de lo que marcaba su plan de viabilidad**.

De esta manera, a pesar de seguir la tramitación y no denunciar los convenios; primero **hacen inviable el proyecto**, y segundo en 8 años **no entregan las fincas de reemplazo**, tal y como señala una sentencia del juzgado de lo contencioso nº 3.

Es difícil de comprender por qué UPN, después de firmar estos convenios que tenían un plazo de ejecución para la entrega de fincas en Ibarra (en sustitución por las de Oncineda) de 8 años, no los ejecuta. Hay que recordar que estos 8 años desde 2007 hasta 2015 coinciden con las dos legislaturas de UPN en el Gobierno local, por tanto, **siendo ellos quienes lo habían pactado y firmado, tenían la responsabilidad de ejecutarlo**. Esto evidencia, una vez más, la desidia, falta de interés y ganas de trabajar que han caracterizado a este partido en su proceder al frente del gobierno municipal.

Mientras UPN estaba tomando esas nefastas decisiones, nosotros nos encargábamos de que la ciudad recibiera entre los años 2008-2010 6.850.000€ procedentes de los PGE a través de enmiendas sucesivas presentadas por el grupo PNV en el Congreso para el desarrollo del CTEL, el vivero de empresas y el área industrial, del que hoy dispone nuestra ciudad, una labor desinteresada, dado que en ese momento el grupo municipal de Geroa Bai Lizarra estábamos en la oposición.

Ahora **la amenaza de tener que pagar estas cuantiosas cifras nos obliga a ser muy cautos**. Junto con el resto de fuerzas del Ayuntamiento hemos pedido un informe a la Cámara de Comptos así como hemos encargado estudios al secretario municipal y a un abogado para intentar minimizar todo lo que se pueda el perjuicio a las arcas municipales por culpa de la gestión de UPN.

**Queremos actuar con la máxima trasparencia** porque los vecinos y vecinas de Estella/Lizarra se merecen todas las explicaciones y esperemos que los responsables políticos de este desaguisado asuman las consecuencias que para nuestro Ayuntamiento pueda tener.

# #INDUSTRIA

## 'Revitalizando el Centro Tecnológico'




El objetivo que Geroa Bai Lizarra se ha marcado para esta legislatura es iniciar la andadura para recuperar el potencial industrial que Lizarraldea tuvo en otros tiempos y trabajar para recuperar la capacidad de innovación con la que contaba no hace muchos años, con varios miles de puestos de trabajo industriales que fueron desapareciendo sin que ningún gobierno de UPN, ni foral ni municipal, hiciese nada por evitarlo.

Para Geroa Bai, Estella-Lizarra puede y debe ser una ciudad industrial. Y en este camino estamos trabajando, con Ricardo Gómez de Segura como concejal de Industria al frente, quien está llevando a cabo varias iniciativas sobre innovación tecnológica, emprendimiento y suelo industrial, con el Centro Tecnológico con el que cuenta Lizarra como eje.

Un Centro Tecnológico que, no podemos olvidar, ha sido menospreciado por los gobiernos de UPN, quienes durante años han mostrado un absoluto desinterés por trabajar para el fomento y la creación de empresas en dicho centro. Ahora, por fin, este edificio va acogiendo distintas actividades, como la actividad de CEMITEC a través de un convenio entre el Gobierno de Navarra y el Ayuntamiento de Lizarra.

Queremos destacar también la firme apuesta que estamos realizando por el vivero de empresas ubicado también en el Centro Tecnológico, y que actualmente cuenta con cuatro talleres pesados en la planta baja, siete talleres ligeros, cinco despachos y una sala de reuniones en la segunda planta, todo ello con la dotación necesaria para emprender variadas actividades empresariales.

El paulatino incremento de la demanda para instalarse en el vivero de empresas nos hace entender que el camino que estamos recorriendo es el correcto, y nuestra voluntad está en seguir ofreciendo estas instalaciones para ayudar a los emprendedores que lo necesiten.

La otra infraestructura de la que disponemos es el suelo industrial: un área empresarial de 65.000 m2 con todo lo necesario para la instalación de empresas. Un área que hemos perseguido durante años y que hoy, por fin, es una realidad.

## ¿Y la escuela taller?





Desde Geroa Bai Lizarra queremos también destacar tanto la apuesta por la Formación y el Empleo, con la instalación en nuestra ciudad de la Escuela Oficial de Idiomas y el aumento de la oferta formativa de Formación Profesional, facilitando la incorporación del desempleado al mercado laboral.

En este sentido, la Escuela Taller se encuentra ya completamente dotada y acoge las clases de hostelería y cocina. Contamos también con la dotación presupuestaria para ofrecer otros tipos de formación y certificados profesionales, como una Escuela Taller de mecánica de motos de alta competición que será la tercera en todo el Estado y estará ligada a una infraestructura de la zona como es el Circuito de los Arcos.

# #INVERSIONES





El Ayuntamiento de Estella-Lizarra trabaja ya en la dotación de vivienda social para alquilar o en propiedad en Camineros. El proyecto tiene un presupuesto de un millón de euros, a cargo del Gobierno de Navarra, destinado a acondicionar tres de los bloques y dividir los pisos para obtener entre 30 y 40 viviendas de diferentes tamaños. La partida permitirá también derribar los tres bloques centrales y construir un bulevar central con aparcamientos y zona de ocio.

Con una inversión de 200.000 euros se pretende terminar el proyecto del Centro Cultural Los Llanos, con la adecuación y el adecentamiento de los exteriores del centro. Esta fase concluirá con un parque que se integrará en Los Llanos. Se tirará el lienzo del muro que da a la Ikastola, eliminando el callejón actual, y mejorando la seguridad de la zona e iluminación. En el resto del muro que se conserva se abrirán tres puertas de forja y la obra concluirá con la plantación de césped en el recinto.

# #DEPORTES

## Ahorro de 70.000 euros en la gestión del polideportivo



Geroa Bai Lizarra ha apostado porque esta legislatura se mantenga la gestión indirecta del polideportivo Lizarreria. Nuestra decisión se basa en un estudio de viabilidad detallado, profundo e imparcial, ya que es una cuestión que afecta a un gran número de colectivos y a la carga económica del Ayuntamiento.

Vistos y analizados distintos informes, como la comunicación de Hacienda Foral a Villava sobre la exención del pago de IVA de los servicios deportivos, el informe de viabilidad del equipo económico municipal y el Convenio laboral del Ayuntamiento, hemos decidido apoyar la gestión indirecta ya que la gestión directa a través de la Sociedad Pública incrementaría los gastos como mínimo en 72.000 euros (coste laboral). En caso de que la gestión se realizase a través de una empresa municipal, habría que aumentar otros 60.000 euros para contratar un gerente con su seguridad social. Comenzaríamos así la explotación de las instalaciones deportivas con unos resultados negativos de 20.000 euros y, en este caso, no sería posible la subrogación de los actuales trabajadores.

Creemos además que el conocimiento que tiene una empresa del sector respecto a innovaciones en deporte, técnica deportiva, entrenamiento o materiales es infinitamente mayor que el conocimiento del que dispone el Ayuntamiento, lo que repercutiría sensiblemente en los resultados de la explotación y pudiera verse mermada la calidad de las actividades deportivas ofrecidas a los vecinos y vecinas.

En cuanto a los trabajadores y trabajadoras, no concebimos su subrogación al convenio municipal sin hacer una oposición o el tipo de selección que de oportunidades en igualdad a la ciudadanía. La aplicación del convenio colectivo municipal, el cual se aplica a funcionarios que han superado las correspondientes pruebas objetivas, a trabajadores que no las han superado, es cuanto menos cuestionable desde el punto de vista de la igualdad de oportunidades.

Además, en este sentido, dar de baja a los trabajadores que actualmente desempeñan su función en el polideportivo para convocar las correspondientes pruebas-oposición sería un comienzo con un gran riesgo en la gestión, el cual no estamos dispuestos a asumir.

GEROABAI

# Geroa Bai Estella-Lizarra

El Gobierno de Uxue Barkos ha concedido al Ayuntamiento de Estella-Lizarra una subvención de 200.000 euros para la rehabilitación del edificio del antiguo juzgado, una de las apuestas más relevantes en lo relativo a Turismo y Cultura que se van a ejecutar durante la legislatura.



Aunque el destino final del edificio no está cerrado, nuestro interés es trasladar a este edificio la Oficina de Turismo (ahora adosada al Museo Gustavo de Maeztu) y el Centro de Documentación Jacobea, y de esta manera, al quedar libre la bajera junto al museo ,sería factible instalar en ella los baños y el ascensor que tanto necesita el edificio para hacer posible una mayor accesibilidad.

Desde Geroa Bai Lizarra queremos mostrar nuestra alegría por dicha inversión. Consideramos que es la primera vez en años que el Gobierno de Navarra tiene en cuenta las necesidades de Lizarra, en una cuestión además muy positiva para la ciudad y que fomentará el Turismo y la Cultura, dos áreas en las que Lizarra tiene muchísimo que aportar.

El coste integro del proyecto será de unos 275.000 euros, de los que el Consistorio aportará los otros 75.000 euros a través de los 190.000 euros de libre disposición que ingresará del Plan de Inversiones Locales del Gobierno de Navarra o a través de los fondos del remanente de tesorería.

El edificio del antiguo juzgado es un palacio barroco (siglo XVIII) que cuenta con planta baja, en total 670 m2. En el año 2013 el Gobierno foral acordó la cesión al Ayuntamiento estellés por un plazo de 25 años (hasta 2038), aunque se establecía la posibilidad de prorrogarlo otros 25 más.

## GUZTION NAFARROA-LA NAVARRA DE TODOS/AS

Guzti honengatik, nahi duen guztiari gonbitea luzatzen diogu gure herrigunea ezagutu eta bere kezka eta proposamenak helarazteko gure komunikabideetan.

Invitamos a todo aquel que los desee a que conozca nuestro Grupo Local/Herrigune y a que nos exponga sus preocupaciones, y sugerencias, a través de nuestros canales de comunicación:



Geroa Bai Estella-Lizarra | @GeroaBaiLizarra | www.geroabai.com/herrigune/estella | lizarra@geroabai.com

# UPN, Oncinedaren kudeaketa penagarriaren arduradun

Geroa Bairen iritziz, 2007 eta 2015 bitartean Oncinedako kirol gunearen proiektuaren kudeaketa okerra dela eta, **Lizarrako Udalak 9,7 milioi ordaintzera beharturik egotearen arriskuak arduradun argia du, UPN.**

Egoera larria izan daiteke, kopuru handi horiek ordaintzeak **Udalaren ekonomia kolokan baitezake**. Gogorarazi beharra dago urte honetarako hiri honen aurrekontua 10,8 milioi eurokoa dela.

Proiektuaren hasiera 2003-2007 legegintzaldikoa da eta bere burutzeak faseka egiteko garapena zuen. Lehen faseak Oncinedan igerileku publikoak, eraikin sozial bat, kirol azpiegiturak eta belar artifizialeko futbol zelai bat eraikitzea zuen helburu. **Proiektu horrek kontrastaturiko bideragarritasuna zuen**, eta hori frogatzen duen 2007ko martxoaren 26ko interbentzio txostena dago, horrela adierazten baitzuen. Horrela, proiektuaren tramitazioa orduko zazpi udal taldeetatik seik babestu zuten (PSN, EA, CUE, IU, CDN eta EAJ).

2007an udal gobernuan aldaketa egon ondoren, ulertezina da gobernu talde berriak proiektuarekin aurrera egitea, parada askotan proiektuaren aurkako iritzia agertu ondoren. Horrela gauzak, UPNk proiektu honi uko egiteko aukera ugari izan zuen bai eta hitzarmenak sinatzeari uzteko, hauxe baita orain iritsi den ebazpen honen funtsezko arrazoia.

Erantzukizunak argiak dira, eta talde politiko bakarrari dagozkie, **UPN, bere eskuetan baitzegoen egoera hau ekiditea 2007 eta 2015 bitartean hiria kudeatzeko arduradun zen heinean**. Ulertezinagoa da oraindik proiektua finkatzeko interesik eduki ez arren, UPNk harekin aurrera jarraitzea.

Interbentzio txostenaren gako nagusi bati jaramonik ez egiteagatik UPNk proiektuaren bideragarritasuna hautsi izana da beste paradoxa handia, txostenean Merkatondoan lurzorua saltzea jartzen baitzuen




baldintza moduan (14.780 m2 hiritzeko), eta horren diru-sarrerek futbol zelai berria eta Oncinedako udal igerilekuak hein handi batean finantzatzeko balioko lukete.

Gainera, UPN oraindik ere gehiago urruntzen da txostenaren zuzenbideetatik, gaineratu beharra baitago Merkatondoako futbol zelai zaharraren eta udal igerileku zaharren zaharberritzean inbertsio handia egin zuela, 2,5 milioi euro inguru xahutuz. Ondorioz, erregionalisten kudeaketa erabateko zentzugabekeria dela ziurtatu dezakegu, itxuraz aurreko legegintzaldiko proiektu batekin aurrera jarraituz eta **bere bideragarritasun planak zioenaren aurkakoa eginez.**

Modu honetan, tramitazioa jarraitu eta hitzarmenak ez salatu arren; **lehenik proiektua bideraezina bihurtzen dute**, eta bigarrenik **8 urtetan ez dituzte ordezkatze finkak ematen**, Auzien 3 zenbakiko Epaitegiaren ebazpenak dioen moduan.

Zaila da ulertzea zergatik UPNk, Ibarran finkak emateko (Oncinedakoen ordez) 8 urteko betetze epea zuten hitzarmenak sinatu ondoren ez zituen eman. Gogoratu beharra dago 8 urte hauek, 2007tik 2015era bitartekoak, UPN udal Gobernuan egon zen bi legegintzaldiak izan zirela, hortaz, haiek zien ituna egin zutenak, sinatu zutenak, eta betearazteko erantzukizuna zutenak. Honek agerian uzten du behin berriro ere, udal gobernuaren buru alderdi honek erakutsi duen utzikeria, interes falta eta lan egiteko gogo eza.

UPNk erabaki negargarri hauek hartzen ari zituen bitartean, gu izan ginen hiriak 2008 eta 2010 urteen bitartean Estatuko Aurrekontu Orokorretatik 6.850.000 € jasotzearen arduradunak, EAJ taldeak Kongresuan aurkeztutako zuzenketen bidez gaur egun gure hiriak dituen CTELen garapena, enpresa mintegia eta industrialdea egiteko, lan desinteresatua gainera, orduan Lizarrako Geroa Bai udal taldea oposizioan geunden eta.

**Orain zifra handi horiek ordaintzearen mehatxuak oso zuhur aritzera behartzen gaitu**. Udaleko gainontzeko indarrekin batera txosten bat eskatu diogu Kontuen Ganberari eta estudioak agindu dizkiogu ere udal idazkariari eta abokatu bati, UPNren kudeaketaren ondorioz udal diru-kutxak pairatu ditzakeen kaltean ahalik eta txikienak izan daitezen.

**Gardentasun osoz jardun nahi dugu**

Lizarrako bizilagunek azalpen guztiak merezi baitituzte, eta espero dugu bidegabekeria honen erantzuleek gure Udalak jasan ditzakeen ondorioak bere egin ditzaten.

# #INDUSTRIA

## 'Teknologia Zentroaren suspertzea'




Datorren legegintzaldi honetarako Lizarrako Geroa Baik duen helburua Lizarraldeak beste garaietan izan zuen industria potentziala berreskuratzeko bidea hastea da, bai eta orain urte gutxi zuen berrikuntza ahalmena berreskuratzea ere, desagertzen joan ziren industria alorreko milaka lanpostu zituen hori eta UPNren gobernu bakar batek ere, ez foru gobernuek ez eta udal gobernuek ere, hori ekiditeko ezer egin ez zutelarik.

Geroa Bairen iritziz, Lizarra hiri industriala izan daiteke eta hala izan behar du. Eta bide honetan gaude lanean, Ricardo Gómez de Segura Industria zinegotzia buru dugularik, berrikuntza teknologikoa, ekintzailetza eta lurzoru industrialari buruzko hainbat ekimen aurrera ateraz. Lizarrak duen Teknologia Zentroa ardatz moduan jarriz.

Ez dezagun ahaztu UPNren gobernuek behin eta berriro gutxietsi dutela Teknologia Zentroa, zentro horretan enpresak sustatzeko eta sortzeko azken urteetan erabateko interes falta agertuz. Orain, azkenean, eraikin honek jarduera ezberdinak jasotzen ari ditu, hala nola CEMITEC jarduera Nafarroako Gobernuaren eta Lizarrako Udalaren arteko hitzarmenaren bidez.

Teknologia Zentroan ere kokaturik dagoen enpresa mintegiaren alde egiten ari dugun apustu tinkoa azpimarratu nahi dugu ere, gaur egun lau tailer astun dituelarik behe solairuan eta zazpi tailer arin, bost bulego eta bilera areto bat bigarren solairuan, horiek guztiak enpresa jarduera anitzak abiatzeko beharrezkoak diren dotazioarekin.

Enpresa mintegian ezartzeko eskaeren etengabeko gorakadak ageria uzten du egiten ari dugun bidea zuzena dela, eta behar duten ekintzaileei laguntza emateko instalazio hauek eskaintzen jarraitzea da gure borondatea.

Gure esku dagoen beste azpiegitura bat lurzoru industriala da: 65.000 m2ko enpresa gunea, enpresak bertan ezartzeko beharrezkoa duten guztiarekin. Urte luzez jarraitu eskuratzeko lanean jardun dugun gunea, eta gaur, azkenik, errealitate bat dena.

## Eta Tailer Eskola?





Lizarrako Geroa Baitik Formakuntza eta Enpleguaren aldeko apustua nabarmendu nahi dugu ere, gure hirian Hizkuntza Eskola Ofizialaren ezarpenarekin eta Lanbide Heziketan formakuntza eskaintzaren zabaltzearekin, langabetuak lan merkatura sartzea erraztuz.

Zentzu honetan, Tailer Eskola erabat horniturik dago jada eta ostalaritza eta sukaldaritza klaseak bertan ematen dira.

Beste formakuntza mota batzuk eta ziurtagiri profesionalak eskaintzeko aurrekontu baliabideak ditugu ere, hala nola lehiaketa gorenetarako motoen mekanika Tailer Eskola, Estatu osoko hirugarrena izango delarik eta eskualdeko azpiegituretara loturik egongo dena, kasu Los Arcoseko Zirkuitua.

# #INBERTSIOAK





Lizarrako Udalak alokatzeko edo saltzeko etxebizitza sozialen dotazioan lanean da jada Carnicerosen. Proiektuak milioi bat euroko aurrekontua du, Nafarroako Gobernuaren kontura, hiru bloke egokitzeko eta pisuak banatzeko erabiliko dena, horrela neurri ezberdineko 30 eta 40 arteko etxebizitza kopurua lortuz. Diru horrek erdiko hiru blokeak eraistea ahalbidetuko du, bai eta aparkalekuak eta aisialdi guneak edukiko dituen bulebar zentral bat egitea ere.

200.000 euroko inbertsioarekin Los Llanos Kultura Zentroaren proiektua amaitzen saiatuko gara, zentroaren kanpoaldeak egokituz eta txukunduz. Fase hau Los Llanosekin elkartuko den parke batekin burutuko da. Ikastola aldean dagoen horma-atala botako da, gaur egungo kalezuloa deuseztatuz, eta zonaldeko segurtasuna eta argiztapena hobetuz. Gordetzen den gainontzeko horma zatian hiru burdinezko ate irekiko dira eta lanak amaitzeko belarra ereingo da esparruan.

# #KIROLAK

## 70.000 euroko aurrezpena polikiroldegiaren kudeaketan



Lizarrako Geroa Baik legegintzaldi honetan Lizarrerria polikiroldegiaren kudeaketa ez zuzena mantentzearen alde egin du. Gure erabakia bideragarritasun estudio xehe, sakon eta inpartzial batean oinarritzen da, kolektibo kopuru handi bati eta Udalaren zama ekonomikoari eragiten dion gaia baita.

Txosten ezberdinak ikusi eta aztertu ondoren, hala nola Foru Ogasunak Atarrabiari egindako ohartarazpena kirol zerbitzuen BEZ ordaintzeko salbuespena zela eta, udaleko ekonomia taldearen bideragarritasun txostena eta Udaleko langileen Hitzarmena, kudeaketa ez zuzena babestearen alde agertu gara. Elkarte Publiko baten bidezko kudeaketa zuzenean gastuak, gutxi jota, 72.000 eurotan haziko liratekelako (langileen kostua). Kudeaketa udal enpresa baten bidez egingo balitz, oraindik 60.000 euro gehiago handituko litzateke gastua gerente bat kontratatzeko, bere gizarte segurantza barne. Horrela, kirol instalazioen kudeaketa 20.000 euro negatiboko emaitzekin hasiko genuke eta, kasu horretan, ez litzateke posible izango gaur egungo langileen subrogazioa.

Gure ustez gainera, sektoreko enpresa batek kirol berrikuntzetan, kirol tekniketan, entrenamenduan edo materialetan duen ezagutza Udalak duena baino askoz ere handiagoa da, kudeaketaren emaitzetan nabarmen eraginez eta bizilagunei eskaintzen zaizkien kirol jardueren kalitatea urrituz.

Langileei dagokienez, ez gaude oposaketa bat egin gabe edo hiritar guztiei aukera berdintasuna ematen dion hautaketa modu bat gabe udal hitzarmenari subrogazioa egitearen alde. Dagozkien proba objektiboak gainditu dituzten funtzionarioei ezartzen zaien Udal hitzarmen kolektiboa, probarik gainditu ez dituzten langileei ezartzea, zalantzan jartzeko modukoa da gutxienez, aukera berdintasunaren aldetik begiratuta.

Zentzu honetan gainera, gaur egun polikiroldegian lan egiten duten langileei baja ematea, dagozkien proba-oposaketak deitzeko, arrisku handiko hasiera izango litzateke kudeaketan, eta ez gaude arrisku hori gure gain hartzeko prest.

# Geroa Bai Estella-Lizarra



Barkosen Gobernuak 200.000 euroko diru-laguntza eman dio Lizarrako Udalari antzinako epaitegiaren eraikina zaharberritzeko, Turismo eta Kultura alorretan legegintzaldi honetan egingo diren apustuen artean garrantzitsuenetako bat alegia.

Eraikinaren erabilera oraindik itxita egon ez arren, gure apustua Turismo Bulegoa (orain Gustavo de Maeztu Museora atxikita dagoena) eta Donejakue Bidearen Dokumentazio Zentroa eraikin horretara tokialdatzea da, horrela, museo ondoan dagoen etxabea libre geratzean, bertan eraikinak hainbeste behar duen irisgarritasuna emango dioten komunak eta igogailua jartzea ahalbidetuz.

Lizarrako Geroa Baitik gure poza agertu nahi dugu inbertsio honen aurrean. Nafarroako Gobernuak Lizarraren beharrak kontutan hartzen dituen lehen aldia dela deritzogu, hiriarentzako oso positiboa den gai batean gainera, Turismoa eta Kultura sustatuko baititu, Lizarrak emateko asko duen bi alor alegia.

Proiektuaren kostu osoa 275.000 eurokoa da, Udalak beste 75.000 euro jarriko dituelarik Nafarroako Gobernuko Toki Inbertsio Planean erabilera librerako dagozkion 190.000 euroetatik edota diru-kutxa soberakinen fondoen bidez.

Epaitegi zaharraren eraikina jauregi barroko bat da (XVIII mendea) eta behe solairua du, osotara 670 m2. 2013 urtean foru Gobernuak Udalari 25 urtez lagatzea adostu zuen (2038 urteraino), nahiz eta beste 50 urte luzatzeko aukera ezarri ere.

## GUZTION NAFARROA-LA NAVARRA DE TODOS/AS

Guzti honengatik, nahi duen guztiari gonbitea luzatzen diogu gure herrigunea ezagutu eta bere kezka eta proposamenak helarazteko gure komunikabideetan.

Invitamos a todo aquel que los desee a que conozca nuestro Grupo Local/Herrigune y a que nos exponga sus preocupaciones, y sugerencias, a través de nuestros canales de comunicación:



Geroa Bai Estella-Lizarra | @GeroaBaiLizarra | www.geroabai.com/herrigune/estella | lizarra@geroabai.com